

## Xedapen Orokorrak

### INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

756

25/2005 DEKRETUA, otsailaren 8koa, Euskadiko Kontsumorako Koordinazio-Batzordea arautzen duena.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 67. artikuluan kontsumorako koordinazio-batzorde bat sortzea aurreikusten da, kontsumoaren alorrak berezkoa duen horizontaltasuna kontuan hartuta. Batzorde hori Eusko Jaurlaritzaren sailak koordinatzeko organoa izango da: kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babestearen inguruan eskumenak dituzten sailak koordinatuko ditu, zehazki.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorritz, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko otsailaren 8an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Kontsumorako Koordinazio-Batzordearen atxikipena.

Euskadiko Kontsumorako Koordinazio-Batzordea sortzen da. Industria, Merkataritza eta Turismo Sailari atxikita geratuko da, kontsumoaren alorreko eskumenak izango ditu eta kontsumitzaileak babesteko eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzaren sailak koordinatuko ditu.

**2. artikulua.**— Egitekoak.

Euskadiko Kontsumorako Koordinazio-Batzordeak egiteko hauek izango ditu kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestearen alorrean:

a) Dauden giza-baliabideak eta materialak zentzuz erabiltzeko irizpideak ezarriko ditu, Eusko Jaurlaritzaren sailen lanean bikoiztasunik egon ez dadin; kontsumoari buruzko politika bateratu eta koherente bat formulatuko du Autonomia Erkidegorako, eta bereziki, ikuskapen-plan baterakoak eta informazio-kanpainak ezarriko ditu.

b) Komenigarritzat jotako neurriak proposatuko dizkie eskumenak dituzten organoei, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak benetan babesteko.

c) Azterlanak edo txostenak aginduko dizkie Eusko Jaurlaritzako organo juridikoei edo teknikoei; halaber,

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO

756

DECRETO 25/2005, de 8 de febrero, por el que se regula la Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi.

La Ley 6/2003, de 22 de diciembre, de Estatuto de las Personas Consumidoras y Usuarías, respondiendo a la horizontalidad propia de la materia de consumo, prevé, en su artículo 67, la creación de la Comisión Coordinadora de Consumo como órgano de coordinación interna de los diferentes Departamentos del Gobierno Vasco cuyas competencias puedan tener relación con la protección de los derechos de las personas consumidoras y usuarias.

En su virtud, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta de la Consejera de Industria, Comercio y Turismo, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 8 de febrero de 2005,

#### DISPONGO:

**Artículo 1.**— Adscripción de la Comisión Coordinadora de Consumo.

Se crea la Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi que estará adscrita al Departamento de Industria, Comercio y Turismo, competente en materia de consumo, como órgano de coordinación interna de los distintos Departamentos del Gobierno Vasco con competencias en materia de protección a la persona consumidora.

**Artículo 2.**— Funciones.

Son funciones de la Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi en materia de protección de las personas consumidoras y usuarias:

a) Establecer criterios para la utilización racional de los medios humanos y materiales disponibles, evitando duplicidades en las actuaciones de los Departamentos del Gobierno Vasco y formulando una política unitaria y coherente de consumo en la Comunidad Autónoma y, en particular, el establecimiento de planes conjuntos de inspección y campañas informativas.

b) Proponer a los órganos competentes las medidas que se estimen aconsejables para la protección efectiva de los derechos de las personas consumidoras y usuarias.

c) Encargar estudios o informes a los órganos jurídicos o técnicos del Gobierno Vasco, o bien a personas,

kasu zehatzetan edo, oro har, kontsumoaren alorrean espezializatuta dauden pertsonen, entitateen edo instituzioen.

d) Kontsumitzaileak babesteko sailek proposatutako gaiei buruz txostenak egingo ditu.

e) Sailentzat interesgarri izan daitekeen informazioa trukatu, eta langileak elkarrekin prestatuko ditu.

### 3. artikulua.— Osaera.

1.— Kontsumorako Koordinazio-Batzordearen ki-deak izango dira:

a) Merkataritza eta Kontsumo sailburuordea.

b) Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako Koordinazio zuzendaria.

c) Kontsumo zuzendaria.

d) Horiez gain, Eusko Jaurlaritzako sail guztietatik ordezkari bana, zuzendari maila duena. Dagokion sailleko sailburuak izendatuko du ordezkaria eta Batzordeko lehendakariari jakinarazi beharko dio.

2.— Inguruabarren arabera, beste edozein zuzendaritzak parte hartuko du batzordean. Izan ere, batzuetan beharrezkotzat jo daiteke, gai zehatzak izateagatik zuzendaritza hori eraginpean egon daitekeelako. Horretarako, lehendakariak deialdia eta gai-zerrenda bidaliko dizkio. Zuzendaritzak iritzia eman bai, baina ez du bozkatzetik izango.

3.— Beharrezko irizten zaionean, lehendakariak egin diezaike beste instituzio edo erakunde batzuen ordezkarietara eta langai duen alorrean aditu edo aholkulari diren pertsonen. Pertsona horiek iritzia eman bai, baina ez dute bozkatzetik izango.

4.— Absentziak edo gaixotasunak tarteko direnean eta, oro har, justifikatutako arrazoiren bat dagoenean, batzordeko kideak ordezkatu egin daitezke, betiere, sailleko sailburuak ordezkaria izendatu ondoren eta Batzordeko lehendakariari jakinarazi ondoren.

5.— Lan-taldeak ere era daitezke. Egin beharreko lanak nolakoak diren kontuan hartuta, aditu diren pertsonak aldi baterako atxikiko zaizkie lan-talde horiei. Lan-taldean hartzen diren erabakiak Batzordeari aurkeztuko dizkiote, onar dezan. Ardurapean utzitako proiektua prestatu ostean desegino dira lan-taldeak.

### 4. artikulua.— Lehendakaritza eta idazkaritza.

1.— Merkataritza eta Kontsumo sailburuordea izango da Batzordeko lehendakari.

2.— Kontsumo zuzendaria izango da Batzordeko idazkari.

entidades o instituciones especializadas en la materia de que se trate en cada caso, o en materia general de consumo.

d) Informar sobre asuntos propuestos por los distintos departamentos en materia de protección la persona consumidora.

e) El intercambio de información de interés para los diversos departamentos y la formación mutua del personal.

### Artículo 3.— Composición.

1.— Serán miembros de la Comisión Coordinadora de Consumo:

a) El Viceconsejero de Comercio y Consumo.

b) La Directora de Coordinación de Vicepresidencia del Gobierno.

c) La Directora de Consumo.

d) Además de los anteriores un miembro con rango de Director o Directora, en representación de cada uno de los Departamentos del Gobierno Vasco. Los representantes serán nombrados por el Consejero o Consejera de su Departamento que lo comunicará al Presidente de la Comisión.

2.— Circunstancialmente formará parte de esta Comisión cualquier otra Dirección cuando se considere necesario por tratarse temas específicos que puedan afectarles. Para ello el Presidente les enviará la convocatoria y el orden de día y asistirán a la reunión con voz pero sin voto.

3.— Cuando se considere necesario la Comisión podrá convocar a representantes de otras instituciones u organismos y a personas expertas o asesoras en las materias objeto de trabajo. Estas personas acudirán a las reuniones con voz pero sin voto.

4.— En casos de ausencia o de enfermedad y, en general, cuando concurra alguna causa justificada, los miembros titulares del órgano colegiado podrán ser sustituidos previo nombramiento del sustituto por el Consejero o Consejera del Departamento y su comunicación al Presidente de la Comisión.

5.— Se podrán crear, asimismo, Grupos de Trabajo con adscripción temporal a los mismos de personas especializadas en las diferentes materias de acuerdo con la naturaleza de los trabajos a realizar. Los acuerdos tomados en los grupos de trabajo se elevarán a la Comisión para su aprobación. Los grupos de trabajo se disolverán tras la elaboración del proyecto encomendado.

### Artículo 4.— Presidencia y Secretaría.

1.— La presidencia de la Comisión será ejercida por el Viceconsejero de Comercio y Consumo.

2.— La secretaría de la Comisión será ejercida por la Directora de Consumo.

**5. artikulua.**– Funtzionamendua.

1.– Euskadiko Kontsumorako Koordinazio-Batzordea urtean behin batuko da ohiko bilkuran, eta ezohiko bilkuran, lehendakariak deitzen duenean bai bere kabuz bai batzordeko kideen heren batek eskatuta.

2.– Lehendakariari dagokio deialdia egitea, gutxienez hamar egun lehenago, eta gai-zerrenda finkatzea batzordeko kideek egindako eskariak kontuan hartuta.

3.– Deialdia egiteko epea laburtu egin daiteke premia dagoenean.

4.– Batzordea balioz eratzeko, kideen gehiengoak egon beharko du lehenengo deialdian; bigarren deialdia ordu erdi geroago egingo da, eta kideen herenak egon beharko du.

5.– Erabakiak bozketaz hartu behar baldin badira, bilkuran daudenen gehiengoz hartuko dira, eta berdin-kerarik gertatuz gero, lehendakariaren botoak ebatziko du.

6.– Artikulu honetan aurreikusi gabekoetan, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluak aginduko du (30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erki-dearena).

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

Dekretu hau indarrean sartu eta hiru hilabetera, sailen ordezkari izango direnen izendapenak jakinaraziko dizkiote sailek Batzordeko lehendakariari.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko otsailaren 8an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

**Artículo 5.**– Funcionamiento.

1.– La Comisión Coordinadora de Consumo de Euskadi se reunirá una vez al año en sesión ordinaria y, con carácter extraordinario cuando la convoque el Presidente o la Presidenta, por propia iniciativa o a petición de un tercio de sus miembros.

2.– Compete al Presidente o Presidenta convocar las reuniones con, al menos, diez días de antelación y fijar el orden del día, teniendo en cuenta las peticiones formuladas por los miembros de la Comisión.

3.– El plazo de la convocatoria podrá reducirse en caso de urgencia.

4.– La Comisión quedará válidamente constituida cuando asista la mayoría de sus miembros en primera convocatoria, o la tercera parte de ellos en segunda convocatoria media hora más tarde.

5.– En el supuesto de requerir la adopción de acuerdos por votación, estos se decidirán por mayoría de votos presentes, dirimiendo los empates el voto del Presidente o Presidenta.

6.– En lo no previsto en este Decreto la Comisión Coordinadora de Consumo se regirá por lo dispuesto en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

En el plazo de tres meses desde la publicación del presente Decreto los Departamentos comunicarán al Presidente o Presidenta de la Comisión los nombramientos de los miembros que los representarán en la misma.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2005.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,  
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.